



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK AED ALKARTEKO EMAKUMEZKO ZUZENDARI, ENPRESARI ETA PROFESIONALAK OMENDU DITUE

- **Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak, enpresetan erabagiak hartzeko arloetan emakume profesionalak euki behar daben ikusgaitasuna eta beteten daben lekua bultzatzen dauen alkarteko hogeit hamar emakume inguru jaso ditu Gernikako Batzarretxean.**

(Gernikan, 2020ko urtarrilaren 20an).- AED alkarteko (Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarteak) hogeit hamar emakume profesional inguruk harrerea jaso dabe gaur, ohore guztiakaz, Gernikako Batzarretxean. Begoña Murgialday eta María Caballero, AEDeko presidenteordea eta idazkaria, hain zuzen be, buru zirala, AEDeko kideak izan dira Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria anfitrioi moduan aritu dan omenaldiaren protagonistak.

Orain denpora gitxi emakume baserritarrakaz edo Euskadiko ijito kolektiboagaz egin dan moduan, Bizkaiko Batzar Nagusiek balioan jarri dabe, gehienetan gizonezkoen esku dagon munduan, enpresakoan, zuzendaritzako postuetan batez be nabarmentzen diran emakume horreen beharra.

Ana Otadui, “azkenengo 25 urteetan Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartetik egiten ari zaien beharra” aintzatetsi dau, “emakumea ahaldunduz, gizonek nagusitasun handia daukien enpresen zuzendaritzaren arloan eta enpresa munduan, orokorrean”. Otadui AEDren beharra azpimarratu dau, “bardintasunezko lidergoan oinarritutako enpresa eredurako eragile aktiboa” dala esanez.

Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartearen izenean, Begoña Murgialday presidenteordeak harrerea eskertu dau, “gizarte bardintsuagoa, zuzenagoa, eta ikuspuntu guztietatik iraunkorragoa lortzeko beharrean ari garan erakundeentzako, AEDrentzako, adibidez, aintzatespena eta konpromisoa erakusten dauen gune honetan”.

1995ean sortu zan AED alkartek, Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresa txikietan, ertainetan eta handietan behar egiten daben emakume enpresari, zuzendari eta profesionalen interesak ordeztu ditu. Helburu nagusia, emakumezkoek enpresa arloan beteten daben lekua handituko daben eta ekonomiaren eta enpresaren egitura oso-osorik sartzeko dagozan oztopoak botako dituan azpiegiturak sortzen laguntzea da.

AEDek datozan lau urteetan aurrera eroango dituan ildo estrategikoak, LIDERA programaren bitartez emakumezkoek enpresetako administrazio kontsejuetan eta zuzendaritza organuetan daukien presentzia bultzatzea, eta IMPULSA programaren bitartez gazteei ezagutzea eta esperientzia transmitidutea dira, enpresak eta gizartea eraldatzeko.

Txistulari batek musikagaz lagundu dau taldea Batzarretxearen kanpoaldetik egin dauen ibilbidean. Arbola Zaharrea eta Gernikako Arbolan geratu dira eta, bertan, dantzari bikote batek Aurrekua dantzatu dau emakumeen ohoretan. Horren ostean Osokoen Aretora eta Beirategiaren Aretora joan dira, eta bertan egin ditue adierazpenak. Lurraldeko jarduera ekonomikoak gogoratuazoten dituen eta emakumeak baztertuta dagozan beirategi handiaren azpian, hain zuzen be.

Ohikoa danez, harrera ekitaldiari amaierara emoteko, Gernikako Batzarretzeko Ohorezko Liburuan sinatu dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA HOMENAJEAN A DIRECTIVAS, EMPRESARIAS Y PROFESIONALES DE LA ASOCIACIÓN AED

- **Ana Otadui, Presidenta de la Cámara Foral vizcaína, ha recibido en la Casa de Juntas de Gernika a una veintena de mujeres de esta agrupación que potencia la visibilidad y el papel de las profesionales en los ámbitos de decisión empresarial.**

(Gernika, a 20 de enero de 2020).- Una veintena de mujeres profesionales de la asociación AED (Asociación de Empresarias y Directivas de Bizkaia) han sido recibidas hoy con todos los honores en la Casa de Juntas de Gernika. Encabezadas por Begoña Murgialday y María Caballero, vicepresidenta y secretaria, respectivamente, de AED, las integrantes de la asociación han sido las protagonistas de un homenaje en el que Ana Otadui, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, ha ejercido de anfitriona.

Como hicieron recientemente con las mujeres baserritarras o el colectivo gitano en Euskadi, las Juntas Generales de Bizkaia han puesto en valor así el importante trabajo de estas mujeres que despuntan en un mundo, el empresarial, habitualmente copado por los hombres, especialmente en los puestos de dirección.

Ana Otadui ha reconocido “el trabajo que estáis haciendo desde hace 25 años a través de la asociación de Empresarias y Directivas de Bizkaia, empoderando a la mujer en un mundo tan masculinizado como es el de la dirección de empresas y el mundo empresarial”. Otadui ha destacado el trabajo de AED como “agente activo hacia un modelo empresarial de liderazgo igualitario”.

En nombre de la Asociación de Empresarias y Directivas, la vicepresidenta Begoña Murgialday ha agradecido la recepción en “un espacio de reconocimiento y de compromiso para aquellas entidades que como AED, estamos trabajando para conseguir una sociedad más igualitaria, justa y desde todos los puntos de vista, sostenible”.

Creada en 1995, AED es la organización que representa los intereses de mujeres empresarias, directivas y profesionales que operan en pequeñas, medianas y grandes empresas del Territorio Histórico de Bizkaia. Su principal objetivo es estimular la creación de infraestructuras que amplíen el papel de las mujeres en el ámbito empresarial y remuevan los obstáculos existentes para su plena integración en el tejido económico y empresarial.

Las líneas estratégicas de AED para los próximos cuatro años son impulsar la presencia de mujeres en los consejos de administración y órganos de dirección de empresas, a través del programa LIDERA, así como transferir el conocimiento y experiencia a la juventud, para transformar así las empresas y la sociedad, con el programa IMPULSA.

Una txistulari ha acompañado con música a la comitiva en el recorrido por el exterior de la Casa de Juntas, con paradas en el Árbol Viejo y en el Árbol de Gernika, donde una pareja de dantzaris ha bailado un Aurreku en su honor. Después, han accedido al Salón de Plenos y a la Sala de la Vidriera, donde han tenido lugar las declaraciones. Justo debajo de la enorme vidriera cuyas imágenes hacen referencia a las actividades económicas del territorio y en el que las mujeres aparecen relegadas.

Como es habitual, la recepción ha terminado con la firma en el Libro de Honor de la Casa de Juntas de Gernika.